


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.maila

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN MARKOA

HIZKUNTZA- ETA LITERATURA- KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

EUSKARA, GAZTELANIA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZA



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
(ISEI-IVEI)**

2021eko iraila

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetenziaren definizioa	5
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak.....	5
4. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak.....	7
4.1. Deskribapen orokorra.....	7
4.2. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzian euskaraz eta gaztelaniaz	10
1. dimentsioa: Entzumena.....	10
2. dimentsioa: Irakurmena.....	17
3. dimentsioa: Idazmena.....	24
4. dimentsioa: Mintzamina	27
5. dimentsioa: Ahozko elkarrekintza	30
4.3. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzian atzerriko hizkuntzaz.....	33
1. dimentsioa: Entzumena.....	33
2. dimentsioa: Irakurmena.....	39
3. dimentsioa: Idazmena.....	45
4. dimentsioa: Mintzamina	49
5. dimentsioa: Ahozko elkarrekintza	53

1. Sarrera

Txosten honetan garatzen dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapako kanpo ebaluazioa egiteko kontuan hartu diren elementuak. Haien artean, Heziberri 2020 Dekretutik hartutako elementuak eta ISEI-IVEIn egindakoak. Saiatu gara aipatutako ebaluazioa zehaztaperen nahikoaz nola egiten den azaltzen, azpimarratuz, azken buruan, ebaluazioan ezinbestekotzat jotzen diren errendimendu-mailak ere.

Kompetentzia definitzea, eta dimentsioak aztertzea, izan dira abiapuntuak ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak aukeratzeko. **Ebaluazio-irizpideen** bidez, argi ikus daiteke kompetentziaren garapen maila, eta **lorpen-adierazleen** bidez gauzatzen dira zehaztuko diren jokabide behagarrietan. Horiek hiru **errendimendu-mailatan** banatzen dira: hasierakoa, erdikoa eta aurreratua. Maila horietako tauletan ageri diren adierazleak orientagarriak dira eta ebaluazio-irizpideen jokabide behagarri gisa definitzen dira, eta beraz ebaluazioaren azken erreferente ere bihurtzen dira.

Planteatzen diren egoerak ebazteko ikasleak behar dituen ezagutzek, gaitasunek eta trebeziek definitzen dute errendimendu-maila bakoitza. Ikaslea maila jakin batean kokatuta dagoenean, esan daiteke kompetentzia dela maila horretako gaitasunetan eta aurreko mailakoetan.

2. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentziaren definizioa

Hitzezko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz. Literatura-hezkuntza garatzea ere bai, nork bere burua eta inguruko mundu hobea ezagutzeko.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak

Kanpo ebaluazioan kontuan hartu diren helburuak Heziberri 2020k garatu dituen etapa-helburuak dira.

Honako hauek dira **Euskara eta Literatura** eta **Gaztelania eta Literatura** arloetako etapako **helburuak**:

1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
2. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.
3. Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera-arauak aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezen.

4. Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziaz gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko.
5. Literaturako generoen, etapen eta obra nagusien oinarrizko konbentzioen ezagueraz baliatzea, era horretan literatura-testuak modu partekatuan ulertzeko, literatura-ondarearen bidez esperientzia indibiduala eta kolektiboa sinbolizatzen, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzen.
6. Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarrizko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko.
7. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta –estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.

Honako hauek dira **Atzerriko Hezkuntza** arloetako etapako **helburuak**:

1. Ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, ikasleen gaitasunekin eta interesekin bat datozenak, bai eta haiek interpretatzea ere, erantzun egokia eman ahal izateko hainbat komunikazio-egoerari.
2. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta interaktuatzea, modu gutxi-asko autonomoan eta errespetu- eta lankidetzajarrerarekin, modu egoki, koherente eta zuzenean erantzun ahal izateko ohiko komunikazio-beharrei.
3. Hizkuntzaren sistemari buruz gogoeta egitea eta, modu gutxi-asko autonomoan, hizkuntzari buruzko ezaguerak eta erabilera-arauak aplikatzea testuak ulertu eta sortzeko, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta hizkuntzen artean transferitu ahal diren ezaguerak erabiliz.
4. Literatura-testu xume laburrez gozatzea, batik bat ahozko literaturakoak, era horretan munduaren kultura-aniztasuna eta gizakia ulertzeko, hizkuntza aberasteko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.
5. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu eta interpretatzea, soziolinguistikaren oinarrizko ezagueren bidez, era horretan eleaniztasuna aberastasuntzat hartzeko, atzerriko hizkuntzak eta hizkuntzak oro har komunikazio- eta ulermen-bideak direlakoan denetarik jatorri, hizkuntza nahiz kulturako pertsonen artean, eta balio-judizio eta aurreiritzi diren hizkuntza-estereotipoak saihestuz.
6. IKTak erabiltzea gero eta modu autonomo eta kritikoagoan, informazioa eskuratu, komunikatu eta atzerriko hizkuntzan lankidetzan jarduteko.
7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko.

4. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak

4.1. Deskribapen orokorra

Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzia **dimentsio** hauetan dago egituratuta:

1. Entzumena
2. Irakurmena
3. Idazmena
4. Mintzamina
5. Ahozko elkarrekintza

Entzumenak gaitasunak, ezagutzak eta oinarrizko jarrerak biltzen ditu, ahozko testuak euskarri desberdinetan eta erabilera arlo desberdinetan (akademikoa, literarioa, komunikabideak eta pertsonen arteko harremanak) identifikatzeko eta ulertzeko.

Irakurmenak gaitasunak, ezagutzak eta oinarrizko jarrerak biltzen ditu ikaslearen esperientziatik hurbil dauden eta erabilera arlo desberdinetako idatzizko testuak identifikatzeko eta ulertzeko.

Idazmenak idatzizko testuak egiteko gaitasunak, ezagutzak eta oinarrizko jarrerak biltzen ditu. Testuak genero askotakoak izango dira, komunikazio-egoeren gama zabal batera egokituta, paperean edo digitalean.

Mintzamenak eta ahozko elkarrekintzak ahozko testuak egiteko (batzuetan, gidatuta) gaitasunak, ezagutzak eta oinarrizko jarrerak biltzen dituzte. Dimentsio hauek eskatzen dute komunikazio-egoera desberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena zuzentzen duten gaitasun zehatzak menderatzea. Ikasgelan eta ikastetxean ohikoak diren elkarrekintza-egoeretan parte hartzea barne hartzen dute.

Era berean, Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentziaren bost dimentsio hauetako bakoitza koadro honetan islatzen diren **ebaluazio-irizpideetan** zehazten da:

1. dimentsioa: Entzumena

- 1.1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea.
- 1.2. Informazio zehatza hautatzea.
- 1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak eta testuaren xedea ezagutzea.
- 1.4. Testuaren edukia balioetsi eta interpretatzea.
- 1.5. Testuaren forma balioetsi eta interpretatzea.

2. dimentsioa: Irakurmena

- 2.1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea.
- 2.2. Informazio zehatza hautatzea.
- 2.3. Komunikazio-egoeraren elementuak eta testuaren xedea ezagutzea.
- 2.4. Testuaren edukia balioetsi eta interpretatzea.

2.5. Testuaren forma balioetsi eta interpretatzea.

3. dimentsioa: Idazmena

- 3.1. Testu idatziak egiteko komunikazio-egoeraren elementuak kontuan izatea.
- 3.2. Testu idatziak egiteko diskurtso-elementu, elementu morfosintaktiko eta lexikoak kontuan izatea.

4. dimentsioa: Mintzamena

- 4.1. Ahozko testuak egiteko komunikazio-egoeraren elementuak kontuan izatea.
- 4.2. Ahozko testu egitaratuak eta argiak sortzea.
- 4.3. Ahozko testuak sortzea, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak erabiliz.

5. dimentsioa: Ahozko elkarrekintza

- 5.1. Askotariko komunikazio egoeretan parte hartzea era aktibo eta egokian.
- 5.2. Ohiko komunikazio trukeetan arau sozio-komunikatiboak errespetatzea.

Ebaluazio-irizpide bakoitzak hainbat lorpen-adierazle ditu bereizgarri eta horiek deskribatzen dute. Era berean, adierazle hauetarako hiru lorpen maila zehaztu dira: hasierakoa, erdikoa eta aurreratua.

Jarraian, Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentziarako ebaluazio Markoan erabilitako terminologiaren adibide bat dator.

1. dimentsioa: Entzumena

Dimentsioa

Hurrengo irizpideak ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko pertsonen arteko harremanen erabilera eremuetako, komunikabideetako, ikaskuntzako, literatura klasiko eta egungo literaturako erabilera arloetako ohiko ahozko testu laburrak ulertzeko aplikatuko dira.

1.2. Informazio zehatza hautatzea

Ebaluazio-irizpidea

Informazio egokia eta datu esanguratsuak hautatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan, proposatzen diren helburuei erantzuteko. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta irakaskuntza. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai eta gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

1.2.1. Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu eta antolatzen ditu.

Lorpen-adierazleak

1.2.2. Informazio espezifikoa erabiltzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
<p>1.2.1.1.</p> <p>Entzundako informazio argienak aurkitzen ditu, bai eta testuko datu garrantzitsu batzuk ere, betiere testu laburretan eta bere esperientziatik gertukoetan.</p>	<p>1.2.1.2.</p> <p>Entzundako informazioak aurkitu eta antolatzen ditu, bai eta testuko daturik garrantzitsu gehienak ere bere esperientziatik gertu ez dauden testuetan.</p>	<p>1.2.1.3.</p> <p>Entzundako informazioak aurkitu eta antolatzen ditu, inplizituak badira ere, bai eta testuko daturik garrantzitsuenak ere, zenbait testutan.</p>
<p>1.2.2.1.</p> <p>Informazio espezifikoa nekez erabiltzen du proposatutako helburua betetzeko.</p>	<p>1.2.2.2.</p> <p>Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifikoa modu partzialean baliatzen du.</p>	<p>1.2.2.3.</p> <p>Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifikoa baliatzen du era eraginkorrean.</p>

Errendimendu-mailak

Mailak ezartzeko irizpide gisa parametro hauek erabili dira:

- Emandako zereginaren lorpen maila.
- Emandako zereginaren konplexutasuna.
- Arlo desberdinak erlazionatzeko gaitasuna (ideiak, egitura...)
- Hizkuntza-zuzentasunaren maila.
- Esplicitua ez dena ondorioztatzeko eta interpretatzeko gaitasuna.
- Zeregina egiteko hizkuntza-ezagutzen erabilpena.

Parametro horiek lorpen-adierazleei aplikatuta, deskribatu ditzakegu, gutxi gorabehera, Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleengandik espero ditugun emaitzak, ebaluazio-irizpideen garapen-maila bakoitzean.

4.2. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzian euskaraz eta gaztelaniaz

1. dimentsioa: Entzumena

Ahozko ulermenaren ebaluazioan, funtsezkoa da itemak egiteko erabiltzen diren testuak. Testu horiek erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen inguruan antolatzen dira.

Aukeratzen ditugun testu motak:

1. Narrazioa (kontakizunak, albisteak ...)
2. Azalpena (esplikazioak, oharrak, aurkezpenak...)
3. Instrukzioa (arauak, errezetak, jarraibideak ...)
4. Deskribapena (ordutegiak, deskribapenak...)
5. Argudio-testua (iragarkiak, zinema-kritikak, debateak ...)
6. Transakzioa (mezuak, parte hartzeko programak, iritziak...)

Erabilera-eremuak	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Mezuak, argibideak, arauak, oharrak, esperientzien kontakizunak, elkarrizketak, errezetak, aurkezpenak, testigantzak, kexak, kontsultak, inkesta...
Komunikabideak	Albisteak, oharrak, elkarrizketak, publizitatea, kronikak, erreportajeak, iragarkiak, dokumentalak, debateak, efemerideak, liburuen aipamenak...
Akademikoa	Deskribapenak (akademikoak, teknikoak...), definizioak, biografiak, azalpenak, aurkezpenak, iritziak, argudioak, instrukzioak (makinen funtzionamendua, laborategikoak...), dekalogoak...
Literarioa	Bertsoak, ipuinak, anekdotak, abestiak, antzezpenak, poesiak, kondairak, egunerokoak, memoriak, mitoak...

1.1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea

Ahozko testuen zentzu orokorra ulertzea eta interpretatzea, bereziki, nolabaiteko konplexutasuna duten euskarri zein genero anitzeko ahozko azalpen- eta argudio-testuetan. Testu horiek erabilera-eremu hauetakoak izango dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta ikaskuntza. Halaber, testu literarioak ere hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak. Testu horien ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatu eta testuaren egitura orokorra eraiki beharko da.

Lorpen-adierazleak

1.1.1. Ahozko testuaren zentzu orokorra antzematen du.

1.1.2. Ahozko testuaren gaiari igartzen dio.

1.1.3. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.

1.1.4. Atalen arteko harreman logikoak ezartzen ditu, eta ahozko testuaren egitura antzematen du.

1.1.5. Informazio-edukia laburbiltzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
1.1.1.1. Ahozko testuaren zentzu orokorra partzialki antzematen du.	1.1.1.2. Ahozko testuaren zentzu orokorra antzematen du.	1.1.1.3. Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen zentzu orokorra antzematen du.
1.1.2.1. Ahozko testuaren gaia modu sinplean inferitzen du, eta edukia gutxi gorabehera adierazten duen izenburua hautatzen du.	1.1.2.2. Ahozko testuaren gaiari igartzen dio, eta gai da izenburua jartzeko.	1.1.2.3. Testuaren gaiari buruzko inferentziak egin ditzake eta gai da testuari izenburu egokia jartzeko.
1.1.3.1. Ideia nagusi batzuk antzematen ditu.	1.1.3.2. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.	1.1.3.3. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu zehaztasunez, eta zenbait testutan.
1.1.4.1. Testuaren atal batzuk bereizten ditu.	1.1.4.2. Ahozko testuaren atal nagusien arteko harreman logikoak ezartzen ditu, eta egitura antzematen du.	1.1.4.3. Testuaren atalen arteko harreman logikoa zehazten du eta testuaren egitura berreraikitzen du.
1.1.5.1. Informazio-edukia partzialki laburbiltzen du.	1.1.5.2. Informazio-edukia laburbiltzen du gutxi gorabehera	1.1.5.3. Informazio-edukia zehaztasunez laburbiltzen du.

1.2. Informazio zehatza hautatzea

Informazio egokia eta datu esanguratsuak hautatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan, proposatzen diren helburuei erantzuteko. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta irakaskuntza. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai eta gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

1.2.1. Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu eta antolatzen ditu.

1.2.2. Informazio espezifikoa erabiltzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
<p>1.2.1.1.</p> <p>Entzundako informazio argienak aurkitzen ditu, bai eta testuko datu garrantzitsu batzuk ere, betiere testu laburretan eta bere esperientziatik gertukoetan.</p>	<p>1.2.1.2.</p> <p>Entzundako informazioak aurkitu eta antolatzen ditu, bai eta testuko daturik garrantzitsu gehienak ere bere esperientziatik gertu ez dauden testuetan.</p>	<p>1.2.1.3.</p> <p>Entzundako informazioak aurkitu eta antolatzen ditu, inplizituak badira ere, bai eta testuko daturik garrantzitsuenak ere, zenbait testutan.</p>
<p>1.2.2.1.</p> <p>Informazio espezifikoa nekez erabiltzen du proposatutako helburua betetzeko.</p>	<p>1.2.2.2.</p> <p>Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifikoa modu partzialean baliatzen du.</p>	<p>1.2.2.3.</p> <p>Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifikoa baliatzen du era eraginkorren.</p>

1.3. Testuaren komunikazio-egoeraren elementuak eta xedea antzematea

Ahozko testuen xedea eta komunikazio-egoeraren elementuak identifikatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutatik hartukoak: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta irakaskuntza. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

1.3.1. Testuaren helburua identifikatzen du.

1.3.2. Igorlearen asmoaz ohartzen da, ahozko testuak dituen elementu esplizitu eta inplizituei erreparatuta.

1.3.3. Ahozko testuaren helburua eta testu-mota erlazionatzen ditu.

1.3.4. Testuaren igorlea eta hartzailea identifikatzen ditu.

1.3.5. Ahozko testuaren erabilera-eremua eta erregistroa antzematen ditu.

1.3.6. Testuaren generoa antzematen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
1.3.1.1. Helburua identifikatzen du testu laburretan eta bere esperientziatik gertukoetan.	1.3.1.2. Testuaren helburua identifikatzen du, bere esperientziatik gertuko testuetan ez bada ere.	1.3.1.3. Testuaren helburua identifikatzen du hainbat testu motetan.
1.3.2.1. Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuak dituen elementu esplizituen bidez.	1.3.2.2. Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuko elementu esplizitu eta inplizituen bidez.	1.3.2.3. Igorlearen asmoaz erabat ohartzen da, testuko elementu esplizitu eta inplizituen bidez, bere esperientziatik gertuko testuetan ez bada ere.
1.3.3.1.	1.3.3.2. Ahozko testuaren helburua eta testu-mota erlazionatzen ditu.	1.3.3.3. Ahozko testuaren helburua eta testu-mota zehatz erlazionatzen ditu.
1.3.4.1. Testuaren igorlea edo hartzailea identifikatzen du, bere esperientziatik gertuko testuetan.	1.3.4.2. Testuaren igorlea eta hartzailea identifikatzen ditu hainbat testu motetan.	1.3.4.3. Testuaren igorlea eta hartzailea identifikatu eta erlazionatzen ditu.
1.3.5.1. Ahozko testuaren erabilera-eremua antzematen du, bere esperientziatik gertuko testuetan, eta erregistroa espresio nabarmenetan.	1.3.5.2. Zenbait ahozko testuren erabilera-eremua eta erregistroa antzematen du.	1.3.5.3. Ahozko testuaren erabilera-eremua eta erregistroa antzematen ditu.
1.3.6.1. Ohiko testuen generoa identifikatzen du.	1.3.6.2. Zenbait testuren generoa identifikatzen du.	1.3.6.3. Testuen generoa identifikatzen du.

1.4. Testuaren edukia balioetsi eta interpretatzea

Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

- 1.4.1. Informazioa, iritzia, gertaerak eta falaziak bereizten ditu.
- 1.4.2. Testuaren elementu inplizituak inferitzen ditu.
- 1.4.3. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantzia baloratzen du.
- 1.4.4. Adierazpen baztertzailleak identifikatzen ditu.
- 1.4.5. Hedabideetako pertsuasio-testuen asmoak, tesiak eta argudioak identifikatzen ditu.
- 1.4.6. Testuaren edukiari buruzko hipotesiak egiten ditu.
- 1.4.7. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testuaren edukia balioesten du, baita literatura testuen edukia ere.
- 1.4.8. Testuko elementu ez esplizituak interpretatzen ditu: diskurtsoaren modulazioa, zentzu bikoitza, ironia...

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
1.4.1.1. Oso agerikoak diren Informazioak, iritzia, falaziak eta gertaerak bereizten ditu.	1.4.1.2. Informazioak, iritzia, falaziak eta gertaerak bereizten ditu.	1.4.1.3. Informazioak, iritzia, gertaerak eta falaziak erabat bereizten ditu.
1.4.2.1. Inferentzia errazak egiten ditu.	1.4.2.2. Inferentziak egiten ditu.	1.4.2.3. Inferentziak egin eta interpretatu egiten ditu.
1.4.3.1. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantziaren balorazio desegokia egiten du.	1.4.3.2. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantziaren balorazioa egiten du.	1.4.3.3. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantziaren balorazio egokia egiten du.
1.4.4.1. Soilik ageriko adierazpen baztertzailleak identifikatzen ditu.	1.4.4.2. Adierazpen baztertzailleak identifikatzen ditu.	1.4.4.3. Adierazpen baztertzailleak identifikatu eta kritikoki baloratzen ditu.
1.4.5.1. Hedabideetako pertsuasio-testuen asmoak, tesiak eta argudioak identifikatzen ditu, testu errezetan eta bere esperientzietatik gertuko testuetan.	1.4.5.2. Hedabideetako hainbat pertsuasio-testuen asmoak, tesiak eta argudioak identifikatzen ditu.	1.4.5.3. Hedabideetako pertsuasio-testuen asmoak, tesiak eta argudioak identifikatu eta kritikoki baloratzen ditu.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
1.4.6.1. Testuaren edukiari buruzko oinarritzko hipotesiak egiten ditu.	1.4.6.2. Hainbat motatako testuren edukiari buruzko hipotesiak egiten ditu.	1.4.6.3. Testuaren edukiari buruzko hipotesi konplexuak egin eta arrazoitu egiten ditu.
1.4.7.1. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testuen balorazio nahasiak egiten ditu.	1.4.7.2. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testuen balorazioa egiten du.	1.4.7.3. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testuen edukiaren balorazio kritikoa egiten du.
1.4.8.1. Testuko elementu ez esplizituen esanahia interpretatzen ditu, testu errazetan eta bere esperientzietatik gertuko testuetan.	1.4.8.2. Nolabaiteko konplexutasuna duten testuetan elementu ez esplizituak antzematen ditu.	1.4.8.3. Testuko elementu ez esplizituen esanahia interpretatzen du testu ezezagunetan.

1.5. Testuaren forma balioetsi eta interpretatzea

Ahozko testuen forma interpretatzea eta balioztatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak eta ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

- 1.5.1. Hizkuntzaren erabilera-arauen ezagutza erabiltzen du testuak ulertzeko eta balioztatzeko.
- 1.5.2. Ahozko testuetan elementu ez linguistikoak antzeman eta interpretatzen ditu (isiluneak, keinuak, barreak, hasperenak, mintzaira...)
- 1.5.3. Baliabide erretorikoak eta estilistikoak identifikatu eta haien erabilera balioztatzen du.
- 1.5.4. Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu.
- 1.5.5. Testuan erabilitako lexikoa ulertzen du eta sinonimo batzuk ezagutzen ditu.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
1.5.1.1. Hizkuntzaren erabilera-arauen ezagutza testu errazak eta hurbilak ulertzeko erabiltzen du.	1.5.1.2. Hizkuntzaren erabilera-arauen ezagutza erabiltzen du hainbat motatako testuak ulertzeko.	1.5.1.3. Hizkuntzaren erabilera-arauen ezagutza baliatzen du hainbat motatako testuak ulertzeko eta haiek baloratzeko.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
<p>1.5.2.1.</p> <p>Ageriko elementu ez linguistiko batzuen zentzua interpretatzen du.</p>	<p>1.5.2.2.</p> <p>Elementu ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du (isiluneak, keinuak, barreak, hasperenak, mintzaira...)</p>	<p>1.5.2.3.</p> <p>Elementu ez-linguistikoak interpretatu eta modu egokian balioesten ditu.</p>
<p>1.5.3.1.</p> <p>Baliabide erretoriko edo estilistiko ohikoenak identifikatzen ditu.</p>	<p>1.5.3.2.</p> <p>Baliabide erretoriko eta estilistiko batzuk identifikatzen ditu, nolabaiteko konplexutasuna duten testuetan.</p>	<p>1.5.3.3.</p> <p>Hainbat motatako baliabide erretorikoak eta estilistikoak identifikatu eta haien erabilera baloratzen du, nolabaiteko zailtasuna duten testuetan.</p>
<p>1.5.4.1.</p> <p>Testuaren formari buruzko oinarriko hipotesiak egiten ditu.</p>	<p>1.5.4.2.</p> <p>Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu.</p>	<p>1.5.4.3.</p> <p>Testuaren formari buruzko hipotesiak egin eta arrazoitu egiten ditu.</p>
<p>1.5.5.1.</p> <p>Testuaren oinarriko lexikoa ulertzen du</p>	<p>1.5.5.2.</p> <p>Testuaren lexikoa ulertzen du eta sinonimoak identifikatu ditzake.</p>	<p>1.5.5.3.</p> <p>Testuan baliatutako lexikoa erabat ulertzen du, eta hitz horien sinonimo anitzak eman ditzake.</p>

2. dimentsioa: Irakurmena

Ulermen idatziaren ebaluazioan, funtsezkoa da itemak egiteko erabiltzen diren testuak. Testu horiek erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen inguruan antolatzen dira.

Aukeratzen ditugun testu motak:

1. Narrazioa (eleberri zatiak, kontakizunak, albisteak ...)
2. Azalpena (saiakera akademikoak, grafikoak, azalpen-testuak ...)
3. Instrukzioa (erregelamenduak, errezetak, jarraibideak ...)
4. Deskribapena (liburuxkak, mapak, ordutegiak, deskribapenak ...)
5. Argudio-testua (zuzendariari gutunak, iragarkiak, zinema-kritikak ...)
6. Transakzioa (mezu elektronikoak, gutunak, foroak ...)

Erabilera-eremuak	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Gutunak, mikro-blogak, arauak, argibideak, instrukzioak, dekalogoak, etiketak, netiketak, gonbidapenak, oharrak, ordutegiak, agurrak, interneteko foroak, txatak, kexak, eskakizunak, erreklamazioak, iradokizunak, egiaztagiriak, deialdiak, gomendioak, ohiko galderak (faqs), izen emateak, menuak...
Komunikabideak	Liburuxkak, publizitatea, iragarkiak, albisteak, kartelak, iritzi-artikuluak, aktibitate-programak, katalogoak, liburuen aipamenak, artikulatu informatiboak, horoskopoa, zuzendariari gutunak, editorialak, aitorpenak, erreportajeak, lehiaketan oinarriak, prentsa-oharrak, bandoak...
Akademikoa	Deskribapenak (akademikoak, teknikoak...), instrukzioak, iradokizunak, dibulgaziozko testuak, definizioak, azalpenak, argudiatzeak, laburpenak, testu etenak (grafikoak, eskemak, mapa kontzeptualak, denbora-lerroak...), txostenak, biografiak, kontratuak, aurkibideak, bibliografiak, galdera-sortak, inkestak, aurkezpenak, sailkapenak, planifikazioak...
Literarioa	Ipuinak, anekdotak, abestiak, antzezpenak, poesiak, kondairak, egunerokoak, memoriak, mitoak ...
Lana	Kontratuak, lan-elkarrizketak, curriculum vitae, fakturak, aktak...

2.1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea

Testuen zentzu orokorra ulertzea eta interpretatzea, bereziki, nolabaiteko konplexutasuna duten azalpen- eta argudio-testuak, hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak. Testu horiek erabilera-eremu hauetatik hartuko dira: soziala, pertsonala, lanekoa, ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak. Testu horien ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatu eta testuaren egitura orokorra eraiki beharko da.

Lorpen-adierazleak

2.1.1. Testuaren zentzu orokorra ulertzen du.

2.1.2. Testuaren gaiari igartzen dio, eta gai da izenburu egokia jartzeko.

2.1.3. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.

2.1.4. Testuaren egitura orokorra eraikitzen du eta identifikatzen ditu atalen arteko lotura logikoak.

2.1.5. Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.1.1.1. Testuaren gaia modu partzialean ulertzen du.	2.1.1.2. Testuaren zentzu orokorra ulertzen du.	2.1.1.3. Testuaren zentzu orokorra sakontasunez eta zehazki ulertzen du.
2.1.2.1. Testuaren gaiari igartzen dio nolabait, eta testuaren edukia gutxi gorabehera azaltzen duen izenburua jartzen du.	2.1.2.2. Testuaren gaiari igartzen dio, eta gai da izenburu egokia jartzeko.	2.1.2.3. Testuaren gaiari buruzko inferentziak egin ditzake eta gai da testuari izenburu egokia edo sortzailea jartzeko.
2.1.3.1. Testuaren ideia nagusi batzuk antzematen ditu.	2.1.3.2. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.	2.1.3.3. Testu batean baino gehiagotan ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu zehaztasunez.
2.1.4.1. Testuaren egiturako atal batzuk ezagutzen ditu.	2.1.4.2. Testuaren egiturako atal nagusiak ezagutzen ditu.	2.1.4.3. Testuaren atalen arteko harreman logikoa zehazten du eta testuaren egitura berreraikitzen du.
2.1.5.1. Testuaren zentzu orokorraren laburpen osatu gabea egiten du.	2.1.5.2. Testuaren zentzu orokorra laburtzen du	2.1.5.3. Zenbait testuren zentzu orokorra txertatzen eta laburbiltzen du, zehaztasunez

2.2. Informazio zehatza hautatzea

Testu idatzietan Informazio egokia eta datu esanguratsuak hautatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten azalpen- eta argudio- testuetan, proposatzen diren helburuei erantzuteko. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: soziala, pertsonala, lanekoa, ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

2.2.1. Informazio egokiak eta datu garrantzitsuenak aurkitzen ditu.

2.2.2. Informazio espezifikoa erabiltzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
<p>2.2.1.1.</p> <p>Informazio egokiak eta datu argien batzuk aurkitzen ditu.</p>	<p>2.2.1.2.</p> <p>Informazio egokiak eta datu garrantzitsuenak topatzen eta antolatzen ditu.</p>	<p>2.2.1.3.</p> <p>Informazio egokiak eta datu garrantzitsuenak topatzen, antolatzen eta erlazionatzen ditu, testu batean edo gehiagoetan.</p>
<p>2.2.2.1.</p> <p>Informazio zehatza erabiltzen du testu motz eta bere interesetatik hurbil dauden testuetan.</p>	<p>2.2.2.2.</p> <p>Informazio zehatza modu partzialean baliatzen du, hainbat motatako testuetan.</p>	<p>2.2.2.3.</p> <p>Informazio zehatza baliatzen eta antolatzen du era eraginkorrean testu batean edo gehiagoetan.</p>

2.3. Testuaren komunikazio-egoeraren elementuak eta xedea antzematea

Testu idatzien xedea eta komunikazio-egoeraren elementuak identifikatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: soziala, lanekoa, ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

2.3.1. Testuaren helburua antzematen du.

2.3.2. Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuko elementu esplizitu eta inplizituen bidez.

2.3.3. Xedea eta testu mota lotzen ditu.

2.3.4. Komunikazio-egoeren elementuak identifikatzen eta bereizten ditu.

2.3.5. Erabilera-eremua eta erregistroa identifikatzen ditu.

2.3.6. Testuaren generoa identifikatzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.3.1.1. Testuaren komunikazio-helburua antzematen du ezagunak diren edo bere interesetatik hurbil dauden testuetan.	2.3.1.2. Testuaren komunikazio-helburua identifikatzen du hainbat motatako testuetan.	2.3.1.3. Testuaren komunikazio-helburua identifikatzen eta interpretatzen du, nolabaiteko zailtasuna duten hainbat motatako testuetan.
2.3.2.1. Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuak dituen elementu esplizituen bidez.	2.3.2.2. Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuko elementu esplizitu eta implizituen bidez.	2.3.2.3. Igorlearen asmoaz zehaztasunez ohartzen da, testuko elementu esplizitu eta implizituen bidez hainbat testutan.
2.3.3.1.	2.3.3.2. Xedea eta testu mota lotzen ditu.	2.3.3.3. Xedea eta testu mota zehaztasunez lotzen ditu.
2.3.4.1. Komunikazio-egoeren elementuak identifikatzen ditu.	2.3.4.2. Komunikazio-egoeren elementuak identifikatzen eta bereizten ditu.	2.3.4.3. Komunikazio-egoeren elementuak identifikatzen, bereizten eta erlazionatzen ditu.
2.3.5.1. Erabilera-eremua identifikatzen du, bere interesetatik gertu eta ezagunak diren testuetan, eta erregistroa, nabaria denean.	2.3.5.2. Erabilera-eremua eta erregistroa identifikatzen ditu, testu mota desberdinetan.	2.3.5.3. Erabilera-eremua identifikatzen eta aztertzen du hainbat testutan.
2.3.6.1. Testu ezagunen generoa identifikatzen du.	2.3.6.2. Testuen generoa identifikatzen du hainbat motatako testuetan.	2.3.6.3. Testuen generoa identifikatzen du testu ezezagunetan, eta zenbait aspektu formalekin lotzen du.

2.4. Testuaren edukia baloratu eta interpretatzea

Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: soziala, pertsonala, lanekoa, ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

2.4.1. Informazioak, iritziak eta gertaerak bereizten ditu.

2.4.2. Testuaren elementu implizituak inferitzen ditu.

2.4.3. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantzia baloratzen du.

2.4.4. Diskriminazioan oinarritutako adierazpenak ezagutzen eta kritikoki balioesten ditu.

2.4.5. Pertsuasiora bideratutako mezuak kritikoki interpretatzen ditu, bereziki komunikabideetatik datozenak.

2.4.6. Testuaren edukiari buruzko hipotesiak egiten ditu.

2.4.7. Testuaren asmoa oinarri hartuta ideiak eta argumentua ateratzen du.

2.4.8. Norbere ezagutzatik abiatuta, testu literarioen edukia baloratzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.4.1.1. Informazioa, iritzia, gertaerak eta falaziak bereizten ditu errazak eta hurbilak diren testuetan.	2.4.1.2. Informazioak, iritzia eta gertaerak bereizten ditu hainbat motatako testuetan.	2.4.1.3. Informazioa, iritzia, gertaerak eta falaziak bereizten ditu testu konplexuetan edo ez oso ezagunetan.
2.4.2.1. Testuaren elementu implizitu batzuk inferitzen ditu.	2.4.2.2. Testuaren elementu implizituak inferitzen ditu.	2.4.2.3. Testuaren elementu implizituak inferitzen eta interpretatzen ditu.
2.4.3.1. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazio batzuen balorazioa egiten du.	2.4.3.2. Norberaren ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantzia baloratzen du.	2.4.3.3. Norbere ezagutzatik abiatuta, informazioaren garrantzia modu kritikoan baloratzen du.
2.4.4.1. Diskriminazioan oinarritutako adierazpenak ezagutzen ditu.	2.4.4.2. Adierazpen diskriminatzaileak ezagutzen eta kritikoki balioesten ditu.	2.4.4.3. Adierazpen diskriminatzaileak ezagutzen, aztertzen eta kritikoki balioesten ditu.
2.4.5.1.	2.4.5.2. Pertsuasiora bideratutako mezuak interpretatzen ditu, bereziki komunikabideetatik datozenak.	2.4.5.3. Pertsuasiora bideratutako mezuak interpretatzen ditu eta kritikoki baloratzen ditu, bereziki komunikabideetatik datozenak.
2.4.6.1. Testuaren edukiari buruzko hipotesi errazak egiten ditu.	2.4.6.2. Testuaren edukiari buruzko hipotesiak egiten ditu.	2.4.6.3. Testuaren edukiari buruzko hipotesi konplexuak egin eta arrazoitu egiten ditu.
2.4.7.1. Testuaren asmotik abiatuta, ideia eta argumentu batzuk inferitzen ditu, testu errazetan edo testu hurbiletan.	2.4.7.2. Testuaren asmoa oinarri hartuta ideia eta argumentu batzuk ateratzen ditu.	2.4.7.3. Testuaren asmoa oinarri hartuta hainbat ideia ateratzen ditu.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.4.8.1. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testu literarioen edukia partzialki baloratzen du.	2.4.8.2. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testu literarioen edukia baloratzen du.	2.4.8.3. Norberaren ezagutzatik abiatuta, testu literarioen edukia kritikoki baloratzen du.

2.5. Testuaren forma balioetsi eta interpretatzea

Idatzizko testuen forma interpretatzea, bereziki nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko azalpen- eta argudio- testuetan. Testu horiek hainbat euskarritan agertutakoak eta genero askotarikoak izango dira, eta hainbat erabilera-eremutatik hartuko dira: soziala, pertsonala, lanekoa, ikaskuntzakoa. Halaber, testu literarioak hartuko dira, bai literatura klasikokoak, bai gaur egungo literaturakoak.

Lorpen-adierazleak

- 2.5.1. Testuaren elementu linguistikoen zentzua ezagutzen eta balioesten du (baliabide estilistiko eta erretorikoak).
- 2.5.2. Testuaren elementu ez-linguistikoen zentzua ezagutzen eta balioesten du: ortotipografikoak, ikonikoak eta ikus-entzunezkoak.
- 2.5.3. Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu.
- 2.5.4. Testuaren hizkuntza aldaera ezagutzen eta balioesten du.
- 2.5.5. Testuko hiztegi espezifikoa ulertzen du.
- 2.5.6. Testua ulertzeko ezagutza linguistikoak erabiltzen ditu.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.5.1.1. Testuaren elementu linguistikoen zentzua ezagutzen du.	2.5.1.2. Testuaren elementu linguistikoen zentzua ezagutzen eta balioesten du.	2.5.1.3. Testuaren elementu linguistikoen zentzua ezagutzen, aztertzen eta balioesten du eta haien arteko loturak egiten ditu.
2.5.2.1. Testuko linguistikoak ez diren elementu batzuen zentzua ezagutzen du: ortotipografikoak, ikonikoak eta ikus-entzunezkoak.	2.5.2.2. Testuaren elementu ez-linguistikoen zentzua ezagutzen eta balioesten du: ortotipografikoak, ikonikoak eta ikus-entzunezkoak.	2.5.2.3. Testuaren elementu ez-linguistikoen zentzua ezagutzen, aztertzen eta balioesten du: ortotipografikoak, ikonikoak eta ikus-entzunezkoak, eta haien arteko loturak egiten ditu.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
2.5.3.1.	2.5.3.2. Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu.	2.5.3.3. Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu eta ebaluatu egiten du.
2.5.4.1. Testuaren hizkuntza aldaera ezagutzen du.	2.5.4.2. Testuaren hizkuntza-aldiera ezagutzen eta aztertzen du.	2.5.4.3. Testuaren hizkuntza-aldiera ezagutzen, aztertzen eta kritikoki justifikatzen du, testu ez-ohikoetan ere.
2.5.5.1. Testuaren oinarriko hiztegia ulertzen du	2.5.5.2. Testuaren hiztegi espezifikoak ulertzen eta aztertzen du.	2.5.5.3. Oso ohikoak ez diren testuen hiztegia ulertzen eta aztertzen du.
2.5.6.1. Testua ulertzeko ezagutza linguistiko partzialak erabiltzen ditu.	2.5.6.2. Testua ulertzeko ezagutza linguistikoak erabiltzen ditu.	2.5.6.3. Testua ulertzeko ezagutza linguistikoak erabiltzen eta baloratzen ditu.

3. dimentsioa: Idazmena

Hurrengo irizpideak aplikatuko dira luzera erdiko eta egitura nahiz lexiko anitza dituzten testuak idazteko. Testu horiek egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun maila egokia adieraziko dute, eta honako esparruetako hauetakoak izan daitezke: pertsonen arteko harremanak, hedabideetakoak, ikaskuntzaren arlokoak eta literaturarenak.

Erabilera-eremuak	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Gutunak, instrukzioak, gonbidapenak, deiak, oharrak, gomendioak, ordutegiak, errezetak, menuak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Publizitatea, albisteak, elkarrizketak, informazio meteorologikoa, kartelak, aktibitate-programak, informazio-liburuxkak, katalogoak, liburu-aipamenak, artikulu informatiboak...
Akademikoa	Deskribapenak, instrukzioak (nola dabilen aparatu bat...), azalpenak, argudioak, laburpenak, definizioak, txostenak, grafikoak, eskemak, biografiak...
Literarioa	Poesiak, egunerokoak, ipuin laburrak, sketchak, ipuinak, komikiak...

3.1. Testu idatziak egiteko komunikazio-egoeraren elementuak kontuan izatea

Nolabaiteko konplexutasuna duten testu idatziak egiteko testuinguru-elementuak kontuan izatea. Testu horiek hizkuntzaren hainbat erabilera eremutakoak izango dira, gaurkotasun sozial, politiko edo kulturaleko gaiei buruzkoak, eta arreta berezia eskainiko zaie azalpen- eta argudio-testuei, eta kontuan izanda testuinguruaren elementuak.

Lorpen-adierazleak

- 3.1.1. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan hartzen ditu eta idazterakoan aintzat hartzen ditu.
- 3.1.2. Proposatutako agindua kontuan hartzen du.
- 3.1.3. Helburuaren arabera, dagokion testu-generoaren ezaugarriak errespetatzen ditu.
- 3.1.4. Erregistro egokia aukeratzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
3.1.1.1. Komunikazio-egoeraren elementu batzuk kontuan hartzen ditu.	3.1.1.2. Gehienetan komunikazio-egoeraren elementuak kontuan hartzen ditu.	3.1.1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak kontuan hartzen ditu, eta idazterakoan erabaki egokiak eta zuzenak hartzen ditu.
3.1.2.1. Kontuan hartzen du proposatutako agindua, baina modu partzialean.	3.1.2.2. Proposatutako agindua kontuan hartzen du ia alderdi guztietan.	3.1.2.3. Proposatutako agindua betetzen du.
3.1.3.1. Eskatutako testu generoa tarteka errespetatzen du.	3.1.3.2. Eskatutako testu generoa errespetatzen du oro har.	3.1.3.3. Eskatutako testu generoa errespetatzen du.
3.1.4.1. Tarteka, erregistroa komunikazio-egoerara egokitzen da.	3.1.4.2. Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzen da, nahiz eta testu osoan ez izan.	3.1.4.3. Erregistroa komunikazio-egoerara egokitutakoa da testu osoan.

3.2. Testu idatziak egiteko diskurtso-elementu, elementu morfosintaktiko eta lexikoak kontuan izatea

Nolabaiteko konplexutasuna duten testu idatziak egitea, hizkuntzaren hainbat erabilera eremutako testuen diskurtso-elementu, elementu morfosintaktiko eta lexikoak kontuan hartuta. Testuak gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalera gaiei buruzkoak izango dira, eta arreta berezia eskainiko zaie azalpen- eta argudio-testuei.

Lorpen-adierazleak

- 3.2.1. Informazioa modu koherentean aurkezten eta antolatzen du.
- 3.2.2. Gaia behar bezainbeste eta egoki garatzen du.
- 3.2.3. Kohesio-elementuak erabiltzen ditu: testu antolatzaileak eta lokailuak.
- 3.2.4. Hiztegi ugaria eta gaiarekin lotutakoa erabiltzen du.
- 3.2.5. Oinarrizko arau morfosintaktikoak eta ortografikoak errespetatzen ditu.
- 3.2.6. Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozedura ugari erabiltzen ditu.
- 3.2.7. Idatzizko testua modu argian eta ordenatuan aurkezten du.
- 3.2.8. Baliabide linguistiko eta estilistiko ugari erabiltzen ditu testuan.
- 3.2.9. Hizkuntzekin eta hiztunekin lotutako aurreiritziak eta diskriminazio-adierazpenak erabiltzea saihesten du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
3.2.1.1. Informazioa ez du oso modu koherentean aurkezten.	3.2.1.2. Informazioa ulergarri eta modu koherentean antolatzen eta egituratzen du.	3.2.1.3. Informazioa modu koherentean antolatzen du eta testuan zehar garapena du.
3.2.2.1. Gaiaren garapena eskasa da.	3.2.2.2. Gaia behar bezainbeste eta egoki garatzen du.	3.2.2.3. Gaia egoki eta zabal garatzen du.
3.2.3.1. Kohesio gutxiko testua egiten du.	3.2.3.2. Testua kohesionatzeko ohiko lokailuetako batzuk erabiltzen ditu.	3.2.3.3. Lokailuak eta diskurtsoaren antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.
3.2.4.1. Hiztegi urria erabiltzen du.	3.2.4.2. Hiztegi ugaria eta gaiari egokitua erabiltzen du.	3.2.4.3. Hiztegi zehatza, ugaria eta gaiari egokitua erabiltzen du.
3.2.5.1. Zuzentasun gramatikal, lexikal edo ortografikoekin arazoak ditu.	3.2.5.2. Oro har, arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.	3.2.5.3. Arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.
3.2.6.1. Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozeduraren bat erabiltzen du.	3.2.6.2. Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozedura ugari erabiltzen ditu (konparazioak, birformulazioak...)	3.2.6.3. Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozedura ugari erabiltzen ditu, modu eraginkorrean (konparazioak, birformulazioak, definizioak, sailkapenak...)
3.2.7.1. Aurkezten duen testuak irakurgarritasun-arazoak ditu.	3.2.7.2. Oro har, testua argi eta ordenatua aurkezten du.	3.2.7.3. Testua egoki eta zuzen aurkezten du.
3.2.8.1. Baliabide linguistiko batzuk erabiltzen ditu.	3.2.8.2. Baliabide linguistikoak erabiltzen ditu.	3.2.8.3. Baliabide linguistiko eta estilistiko ugari erabiltzen ditu.
3.2.9.1. Diskriminazio-adierazpenak erabiltzea saihesten du.	3.2.9.2. Diskriminazio-adierazpenak erabiltzea saihesten du.	3.2.9.3. Diskriminazio-adierazpenak erabiltzea saihesten du.

4. dimentsioa: Mintzamina

Ikasleek nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testu argi eta egituratuak sortzeko gai izan beharko dute, komunikazio-egoeraren elementuak kontuan hartuta eta, horretarako, beharrezkoak diren hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak erabilia. Era berean, komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartu beharko du.

Erabilera-eremuak	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Elkarrizketak, debateak, instrukzioak, esperientzia-kontakizunak, mezu laburrak...
Komunikabideak	Albisteak, elkarrizketak, deiak, iragarkiak...
Akademikoa	Deskribapenak, instrukzioak, azalpenak, definizioak, esplikazioak, argudioak...
Literarioa	Abestiak, poesiak, ipuinak, antzezpenak, kontakizunak...

4.1. Ahozko testuak egiteko komunikazio-egoeraren elementuak kontuan izatea

Komunikazio-egoera kontuan hartuta, azalpen- eta argudio- testu eraginkorrak egitea, gizarteari, politikari edo kulturari buruzkoak.

Lorpen-adierazleak

4.1.1. Komunikazio-egoera aztertu eta horien arabera erabaki eraginkorrak hartzen ditu.

4.1.2. Testuaren helburua kontuan hartzen du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
4.1.1.1. Oro har komunikazio-egoera kontuan hartzen du.	4.1.1.2. Komunikazio-egoera aztertu eta kontuan hartzen du.	4.1.1.3. Komunikazio-egoera aztertu eta horien arabera erabaki eraginkorrak hartzen ditu.
4.1.2.1. Oro har testuaren helburua kontuan hartzen du.	4.1.2.2. Testuaren helburua kontuan hartzen du.	4.1.2.3. Testuaren helburua zehatz identifikatu eta kontuan hartzen du.

4.2. Ahozko testu egitaratuak eta argiak sortzea

Komunikazio- egoera kontuan hartuta, azalpen- eta argudio- testu argiak eta egituratuak egitea, gizarteari, politikari edo kulturari buruzkoak.

Lorpen-adierazleak

- 4.2.1. Ahozko azalpen- zein argudio-testuak sortzen ditu, argi eta txukun.
- 4.2.2. Modu logikoan antolatzen du informazioa, komunikatu nahi duenaren arabera.
- 4.2.3. Ahozko testua egituratzen du, antolatzaile egokiak erabiliz.
- 4.2.4. Zuzentasun fonetiko eta morfosintaktikoaren arauak errespetatzen ditu.
- 4.2.5. Hiztegi aberatsa erabiltzen du.
- 4.2.6. Gaiak behar bezala eta egoki garatzen ditu.
- 4.2.7. Erregistro egokia hautatzen du (formala edo ez hain formala...).
- 4.2.8. Testua ulergarri egiteko eta hartzailea inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu (ideiak birformulatzea, galdera erretorikoak, erregistro-aldaketa egokiak, umorea erabiltzea...)
- 4.2.9. Hizkuntzaren bidez inor baztertzea eta hartzaileak gutxiestea saihesten du.

Hasierako maila (1)	Erdi-maila (2)	Maila aurreratua (3)
4.2.1.1. Ahozko azalpen- zein argudio- testu nahasi samarrak eta ez oso txukunak sortzen ditu.	4.2.1.2. Ahozko azalpen- zein argudio- testuak sortzen ditu, argi eta txukun.	4.2.1.3. Ahozko azalpen- zein argudio- testu oso zehatzak eta txukunak sortzen ditu, ideia sortzaileak eta ez ohiko argudio bideak erabiliz.
